


EUSKALDUNON EGUNKARIA, paperean irakurtzeaz gain, sare informatiboan ere kontsulta daiteke. Internetek ematen dituen aukera anitzez baliatuz, EGUNKARIAk web orri zabala du bere irakurleentzat. www.egunkaria.com helbide elektronikoan, eguneroko albisteaz gain, hemeroteca osoa on-line dago, 1999ko urtarilaren 1etik aurrera. Bertan kontsulta daitezke EGUNKARIAren atara diren azken hiru urteetako albiste eta gai guztiak. Bilaketa sistema azkar baten bidez, azken hiru urteetako edozein albisteren arrastoa atera daiteke berehala.

Apurka-apurka www.egunkaria.com helbideak izakera propioa lortu du, eta, eguneroko informazioaz gain, bestelako osagaiak ere gehitu ditu bere menuan. *Mundu Mira* gehigarriko mendi ibilaldi guztiak sarean dira www.egunkaria.com/bidaide helbidean. *Xingola*, gaztetxoentzako igandeko gehigarriaren erreportaiak eta narrazioak kontsultatu daitezke www.egunkaria.com/xingola web orrialdean. Urtean behin aldizkari itxurarekin ateratzen den Gida Komertziala ere urte osoan kontsulta daiteke www.egunkaria.com/gida helbidean. Bertan, hainbat telefono eta helbide elektroniko interesgarri topa daitezke.

Bizkaieraz idazteko arauak

Interneteko gune elektronikoak ez ditu jasotzen, soilik, paperean argitaratu diren albiste edo kontuak. Badira hainbat produktu berezi ere: bizkaieraz idazteko oinarriko arauak eta tresnak www.bizkaiera.com helbidean aurki daitezke. Urrian jarri zuen abian zerbitzu hau EGUNKARIAk, eta bizkaiera estandarrean idazteko eta berba egiteko behar diren oinarriko erremintak eskaintzen dira. Aditza, deklinabideak, oinarriko gramatika eta hiztegia aldi berean kontsultatzeko egokiera ematen du zerbitzu berri horrek. *Bizkaiera: oinarriko tresnak* webgunea ez da EGUNKARIAk euskalkiei Internet sarean egingo dien ekarpen bakarra; izan ere, aurki izango da zubererari buruzko beste bat.



AUKERA ZABALA. www.egunkaria.com web helbidean, eguneroko albisten berri jakiteaz gain, erreportaiak, elkarrizketak, txostenak, biografiak eta beste hainbat kontu topa daitezke.

Kioskoa eta internet uztartuz

Herri informazioa, bizkaieraren arauak eta literaturako txokoa dira EGUNKARIAren web orriko berrikuntzak

Bizkaiko eta Nafarroako hiri eta herrietan sortzen den informazioa lantzen duten bi gehigarri ere sarean ditugu: *Bizkaia* eta *Nafarkaria*. Aurten, gainera, Iparraldeko herrietako albisteak sarean irakur daitezke, EGUNKARIAk *Herria* aldizkariarekin sinatu duen akordioari esker. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako albisteak www.egunkaria.com/lapurdi_nafarroa_beherea_edo_zuberoa helbideetan.

Euskal gatazka eta literatura

Euskal gatazka politikoak gure gizartean duen garrantziaz jabetuta, EGUNKARIAk bere ekarpena egin nahi izan du. www.egunkaria.com/gatazka helbidean azken berriak emateaz gain, kronologia zabala, gatazkako parte nagusiek argitaratu dituzten agiriak kontsultatu ahal izango dira, EGUNKARIAren idatzi diren analisiak eta iritziek ere izango dute euren txokoa, eta azkenik, elkarrizketen atala begira daiteke.

Euskal Herriko hauteskunde emaitzek toki berezia dute gure web orrialdean. Ipar Euskal Herrian martxoaren 11n eta 18an, eta Euskal Autonomia Erkidegoan maiatzaren 13an egin ziren hauteskundearen emaitzak sarean daude www.egunkaria.com/m13 eta www.egunkaria.com/hauteskundeak helbideetan.

EGUNKARIAk bere web orrialdea literaturari eskaintako atal bereziarekin loditu du berriki. www.egunkaria.com/literatura helbidean euskal idazleen biografiak, bibliografia, elkarrizketak eta lanen kritikak kontsulta daitezke, besteak beste.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ENPRESA-IKASKETAK

- DONOSTIA -



- Euskarazko irakaskuntza urteetan errotua
- Lau berezitasun: finantzak, kontabilitatea, marketinga eta giza-baliabideak
- Lizentziaturako bigarren ziklora igarotzeko aukera
- Hiru ordenadore-gela: ikasleentzako 100 ordenadore erabilgarri internet-eko loturarekin
- Bi irakaskuntza-gela informatizatuak

- Lan-praktikak enpresetan (275 azken ikasturtean)
- Hizkuntz laborategia eta atzerriko Unibertsitateetara joateko aukera

Tel.: 943 01 83 63

Faxa: 943 01 83 60

<http://www.sc.ehu.es/seweb>



IBARRAKO UDALA

UZTURPE IKASTOLA

- EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA -
HERRIAN HAZI ETA HEZII!
0-16 URTE ARTEKO HEZKUNTZA-PROIEKTUA!

Euskara Zerbitzua
Faxa
e-mail
Uzturpe Udal Haur Eskola
Uzturpe Udal Ludoteka
Uzturpe Ikastola
Faxa
e-mail

943 67 38 27
943 67 38 52
euskara.ibarra@udal.gipuzkoa.net
943 67 02 84
943 67 51 72
943 67 12 99
943 67 56 32
ibarra@ikastola.net